



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 5a

98. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/ITP-00020. Interpelazioa, garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (5. or.).
- 11-25/ITP-00010. Interpelazioa, bidaiarien eta salgaien tren bidezko garraioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (5. or.).
- 11-25/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleei. Pedro González Felipe jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoaingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00107. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak instalatzeari buruz. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/DEC-00025. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-25/POR-00265. Galdera, Nafarroako ardoari ezarritako muga-zergei buruzkoa buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00266. Galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen aro berriari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00267. Galdera, su-gorriari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00268. Galdera, ospitaleetan klimatizazio egokia bermatzeko neurriei buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (13. or.).

- 11-25/POR-00269. Galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia abian jartzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00270. Galdera, Oronoz-Mugairin Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00271. Galdera, PAI programako 352 irakasle-lanpostuak baliozkotzen dituen Auzitegi Gorenaren epaitzari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00272. Galdera, irakasle bakoitzeko ikasle-ratioa mantentzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00273. Galdera, sexu-heziketako prestakuntza-pilotajeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00274. Galdera, Valtierran 2025ean zehar izandako jaiotzengatiko laguntzak emateko deialdiari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/POR-00211. Galdera, "Negozioen Errelebo Poltsa" programari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).
- 11-24/POR-00059. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- 11-24/POR-00305. Galdera, landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- 11-24/POR-00364. Galdera, urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- 11-25/POR-00033. Galdera, mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- 11-25/POR-00055. Galdera, MOVES III Plana berriz luzatu beharri buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- 11-25/POR-00212. Galdera, Enplegurako eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialaren 2025eko maiatzaren 21eko bileran jorratutako gaiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- 11-25/POR-00254. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- 11-25/POR-00255. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditeore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilararen Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- 11-25/POR-00256. Galdera, Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- 11-25/POR-00258. Galdera, Belateko tunelak bikoitzeko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariak jarritako eragozpenei buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).
- 11-25/PES-00275. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00276. Galdera, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00277. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00278. Galdera, osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00279. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarrekiko protokolei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00280. Galdera, Martzillako Behaketa- eta Herrera-zentroaren gaineko salaketei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00281. Galdera, LH Dualeko ebaluazioei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaier andreak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00282. Galdera, LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaier andreak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00283. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (26. or.).
- 11-25/PES-00284. Galdera, Goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (26. or.).

- 11-25/PES-00285. Galdera, 2021eko urtarrilaren laz geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espeditenteei eta ezarritako zehapenei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (27. or.).
- 11-25/PES-00286. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (28. or.).
- 11-25/PES-00287. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazienteei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (28. or.).
- 11-25/PES-00288. Galdera, ambulanzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (29. or.).
- 11-25/PES-00289. Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregulartasunei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (30. or.).
- 11-25/PES-00290. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritza-taldeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (30. or.).
- 11-25/PES-00291. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (31. or.).
- 11-25/PES-00292. Galdera, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendiak egin du (32. or.).
- 11-25/PES-00293. Galdera, Arrotxapeko Osasun Etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (32. or.).
- 11-25/PES-00294. Galdera, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (33. or.).
- 11-25/PES-00295. Galdera, LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (34. or.).
- 11-25/PES-00296. Galdera, Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (34. or.).
- 11-25/PES-00297. Galdera, Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (35. or.).
- 11-25/PES-00298. Galdera, Nafarroako bide publikoak eta ibilbide berdeak arautzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (35. or.).
- 11-25/PES-00299. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onesteko oinarri gisa harturiko txosten tekniko edo juridikoei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (37. or.).
- 11-25/PES-00300. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (38. or.).
- 11-25/PES-00301. Galdera, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (39. or.).
- 11-25/PES-00302. Galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (40. or.).
- 11-25/PES-00303. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (41. or.).
- 11-25/PES-00304. Galdera, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (42. or.).
- 11-25/PES-00305. Galdera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (43. or.).
- 11-25/PES-00306. Galdera, Ribaforada II-La Dehesako urrezalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (43. or.).
- 11-25/PES-00307. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (44. or.).
- 11-25/PES-00308. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidetik gabeko atzerri-tar adingabeei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (44. or.).

- 11-25/PES-00309. Galdera, Artikako behaketa- eta harrera-zentroi buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (45. or.).
- 11-25/PES-00310. Galdera, Europako funtsei buruzkoa (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk). Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (46. or.).
- 11-25/PES-00311. Galdera, Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (47. or.).
- 11-25/PES-00312. Galdera, Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSAko Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (49. or.).
- 11-25/PES-00313. Galdera, Pirinioetako Planari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (50. or.).
- 11-25/PES-00314. Galdera, Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (50. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak (51. or.).
- 11-25/REPA-00008. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea (58. or.).
- 11-25/REPA-00008. Foru parlamentarien ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea (58. or.).
- 11-25/REPA-00008. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea (59. or.).
- 11-25/REPA-00009. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langile funtzionario eta kontratudunen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea (59. or.).
- 11-25/REPA-00009. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko behin-behineko langileen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea (60. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/ITP-00020. Interpelazioa, garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruzkoa**

*INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruz egindako interpelazioa erretiratu izana. Interpelazioa

2024ko irailaren 5eko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/ITP-00010. Interpelazioa, bidaiarien eta salgaien tren bidezko garraioaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak bidaiarien eta salgaien tren bidezko garraioaren arloko politika orokorrari buruz egindako interpelazioa erretiratu izana. Interpela-

zioa 2025eko martxoaren 25eko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleei**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleei.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen baitu konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleei.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak erabaki du heldu den ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen hizkuntza-proiektuetatik kanpo geldituko direla atzerriko hizkuntzan ematen diren Gorputz Hezkuntzako eta Musikako curriculum-arloak. Erabaki horrek eragina izan du ikastetxeetan, bere burua berrantolatu behar izan baitute, baina irakasleei ere egin die kalte, handi-handia gainera, urteak bai-

tzeramatzen ikastetxe horietan espezialitate horietan lan egiten eta hizkuntza-proiektuak garatzen.

2024-2025 ikasturtetik aitzina, ikastetxe horietako lanpostu huts horiek betetzeko, atzerriko hizkuntzaren eskakizuna daukaten unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen egonkortze-prozesuen baitako hautapen-prozesutik sortutako aldi baterako kontratazio-zerrendak baliatu dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan.

Irakasle horiek 2025-2026 ikasturterako erabakiak hartu zituztenean, ezin zuten aurreikusi orain gertatu dena. Heldu den ikasturtean lan egiten jarraitzea aurreikusten zuten irakasleek orain ikusten dute haien kontratazio-zerrenda, urtebete geroago, praktikan ia zaharkiturik dagoela, ez baita lanpostu hutsik eskainiko. Hortaz, irakasle horiek –batzuek plazarik gabe gaudituz zuten, eta beste batzuk, berriz, zerrendan gelditu ziren eta haien lanbidean jardun izan dira aurreko ikasturteetan– hemendik aitzina oso zaila izanen dute plaza bat lortzea Nafarroako ikastetxe publikoetan beren espezialitateetan.

Kontuan hartu behar da irakasle horiek –horietako askok titulazio-eskakizunak zeuzkaten Bigarren Hezkuntzako plazetarako hautapen-prozesuetan parte hartu ahal izateko– ezin izan zutela hautapen-prozesuetan parte hartu, egun berean izan zirelako bi hautaprobak, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak.

Hori dela-eta, uste dugu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak konponbide bat bilatu eta ezarri behar duela al bait lasterren, irakasle horiek irakasle-plaza bat lortu ahal izan dezaten. Hartara, Nafarroako hezkuntza-sistamarako giza kapital garrantzitsu bat mantenduko litzateke, urteak daramatzana programa eleaniztunetan irakasten.

Hortaz, gure ustez, Hezkuntza Departamentuak erantzun bat eman behar die irakasle horiei, zerbitzu ematen jarraitu ahal izan dezaten Nafarroako ikastetxe publikoetan, zeren hartu den curriculum-erabakiak baitakar parte hartu zuten hautapen-prozesuei esker lortutako eskubide batzuk de facto desagertzea.

Egoera hori kontuan hartuta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du ezarri beharreko prozedurak ezar ditzan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako hizkuntza-proiektuetan eta plantilletan gorputz hezkuntza eta

musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek beren lanpostuak mantendu ahal izan ditzaten Nafarroako ikastetxe publikoetan 2025-2026 ikasturtean.

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-25/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio honen betetze-egoerari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Joan den asteartean, ekainaren 24an, Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordeak Ezkabako Gotorlekura eta Botilen Hilerria egindako bisitan, Txinparta Fuerte San Cristóbal Memoria Kolektiboaren Sareko ordezkariak parlamentariei jakinarazi zieten akatsak daudela Botilen Hilerrian dagoen informazio-panelean jasotako informazioan.

Informazio-panel hori Berriozar, Berriobeiti eta Antsoingo udalek paratu zuten bere garaian.

Memoriari buruzko egungo legerian jasota dago Ezkabako Gotorlekua eta haren ingurunea Memoriaren Leku izendatuko direla laster. Izendapen hori gutxi barru egingen denez, beharrezkoa da inplikaturako administrazio publikoek, mugimendu memorialistaren eskutik (kasu honetan, Txinparta Fuerte San Cristóbal Memoria Kolektiboaren Sarea), arduraz zuzentzea eta eguneratzea Botilen Hilerrian dagoen panelean eta gune memorialista horren inguruko gainerako panel eta plaketan azaldutako informazioa.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen du zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoingo

udalen eta Txinparta Fuerte San Cristóbal Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, bi toki horiei buruzko informazioak, herri horietako hilerrietako, Ezkabako Gotorlekuko, Ihes Egindakoen Monolitoko eta Botilen Hilerriko paneletan daudenak.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

---

## **11-25/MOC-00107. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak instalatzeari buruz**

### *GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak instalatzeari buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozio horren jarraipena Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eginen da.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-azpiegituretan energia berriztagarriak sartzeko prozesua eta hondakinen kudeaketarako eta tratamendurako ekonomia zirkularraren printzipioak baliatzea (aprobetxamendu energetikorako edo ongarritze kimiko edo mineralaren ordeko ongarritze organiko elementu gisa) funtsezko jasangarritasun- eta lehiakortasun-faktoreak dira lehen sektorean,

ekonomiaren deskarbonizazioari arian-arian aurre egiteko beharrari eta emergentzia klimatikoari erantzuten laguntzen ari diren estrategiak izateaz gain. Beraz, hori etorkizunerako bide bat da eta, aldi berean, aukera bat ere bai, Nafarroako pertsonak, familiek eta nekazaritza- eta abeltzaintza-enpresek bermez ekin ahal diezaieten lehen sektoreak foru-erkidegoan dauzkan erronkei; izan ere, lehen sektoreak une kritikoa bizi du egun Europa osoan.

Estrategia horiek, aldi berean, bateragarriak izan behar dute lurralde-oreka jasangarriaren printzipioarekin, energia berriztagarrietako eta ekonomia zirkularreko azpiegitura-instalazioekin konprometitutako udalen interes orokorraren printzipioarekin eta herritarren ongizatearen eta bizikaltatearen printzipioarekin. Halatan, ezarpen horiek jasangarritasuna bermatu behar dute (ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik, hain zuzen ere), eta administrazio publikoen ardura da (foru-administrazioarena nahiz udalena) hori zaintzea.

Biometanoa energia berriztagarriaren iturri bat da, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategietan sortzen diren hondakin organiko biodegradagarrien tratamendu-prozesutik sortzen dena, hondakin horiek hurbileko esparru batean berrerabili ahal izan daitezen. Enpresa asko daude Nafarroako zenbait tokitan biometanizazio-plantak paratzeko interesa dutenak, bereziki Erriberagoienan, Tuterako Erriberan eta Nafarroako Erdialdean; hori, zalantzarik gabe, aukera bat izan daiteke lehen sektorearentzat, baina orobat eskatzen du plangintza-, erregulazio- eta adostasun-esparru bat ezartzea ukitutako eragileekin, garapen neurrigabea ekiditeko eta ezarpen hori modu ordena-

tuan eta ingurumen- eta lurralde-jasangarritasunaren printzipioen arabera egiten dela bermatzeko.

Une honetan, Nafarroan sei biometanizazio-planta daude jada baimendurik (Lerinen, Caparrosen, Tuteran, Cababillasen, Mendigorrian eta Arakilen), beste zortzi kasuan kasuko ingurumen-baimena izapidetzen ari dira Foru Administrazioan, eta beste hiruk proiektu aurreko kontsultak egin dituzte. Guztira, 17 proiektu dira, zenbait eskualdetan banaturik; horrek esan nahi du Foru Administrazioak ikuspegi global batekin aztertu behar dituela proiektu horiek, eta modu orekatuan garatzen direla bermatu behar duela, interes orokorra eta lurralde-interesa aldeztuz eta ukitutako toki-entitateak aintzat hartuz.

Halaber, proiektaturiko planta horien tamaina nabarmen aldatzen da bata bestearekin alderatuta: Murillo el Cuenden 213.000 tona aurreikusten dira urtean; Sesman, 184.000; Arroitzen, 140.000, eta Vianan, berriz, 124.000. Beste batzuk, berriz, txikiagoak dira: Cabanillasen, 53.000; Valtierraan, 45.000; eta Artaxoan, 26.000.

Administrazioak orobat zaindu behar du, exijitzen ahal diren beste betekizunen artean, planta horietako bakoitzak jasotzen dituen hondakinen jatorriaren nahiz trazabilitatearen gaineko kontrol-sistema zorrotzak ezartzen dituela, kudeatze-lana biltegi estalietan egiteko plana betetzen dela, lortzen den ongarria edo energia ingurune hurbilean erabiltzen dela, nekazaritza-ustiategiekiko edo hiriguneekiko gutxieneko distantzia gordetzen dela, trafiko astunaren mugikortasuna kontrolatzen dela eta olfatometrien neurketa periodikoa egiten dela.

Proiektu-mota horiek zorrotz-zorrotz bete behar dituzte kasuko ingurumen-baimenak edo udalaren hirigintza-antolamenduak exijitzen dizkien betekizun tekniko guztiak, baina ukitutako toki-entitateen

aurretiazko informazioa, parte-hartzea eta adostasuna ere eduki behar dituzte aldi berean, ez soilik instalazioa paratuko den udalerrikoena, ezpada herri mugakideetakoena ere, gertu egoteagatik proiektu-mota horiek ukituak izan daitezkeelako.

Hori guztia kontuan hartuta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du beharrezko azterlan bat egin dezan biometano-plankak Nafarroan instalatzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du proiektu-mota horiek ez daitezkeen landu instalatu nahi diren udalerrien adostasunarekin soilik, ezpada toki-entitate mugakideen adostasunarekin ere, hurbiltasunagatik ukituak suerta daitezkeelako planta horien ezarpenak berekin dakartzan ingurumen-, paisaia- nahiz gizarte-eraginaren eskutik.

3. Sesmako biometano-planta instalatzeko proiektuari zehatzari dagokionez, ikusita ez dela kokapenari buruzko gizarte- eta udal-adostasunik lortu zuzenean ukitutako herriekin –bereziki, Lodosarekin, zeinak muga egiten baitu eta zuzenean ukitua suertatzen baita, ezen instalazioa bere herri-gunetik bi kilometro eskasera egonen litzateke–, premiatu egiten dira Sesmako Udala eta “Biometano Sesma, SL” enpresa sustatzailea, alda dezaten hasiera batean planteatutako kokapena, eta azter dezaten Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak planteatu dizkien balizko beste kokapenetako batera lekualdatzea.

Iruñean, 2025eko abuztuaren 28an

Eleduna: Pablo Azcona Molinet

## **11-25/DEC-00025. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketa sozial, sanitario eta biomedikoaren aldeko apustua egitea, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko xedez.

3. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den irailaren 19an, ostiralarekin, eguerdiko 12:00etan, AFAN elkartearen parte-hartzearekin.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere faxada magenta kolorez argizatzea irailaren 21ean, igandea”.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00265. Galdera, Nafarroako ardoari ezarritako muga-zergei buruzkoa buruzkoa***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nafarroako ardoari ezarritako muga-zergei buruzkoa buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egingen dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ardoarena sektore estrategikoa da Nafarroarentzat: 158 milioi euro baino gehiago esportatu ditu 2024an, eta horietako 11 milioiren helmuga Estatu Batuak izan ziren.

Herri horrek muga-zergea berriak jartzeak lehendik zeuden arazoak larriagotu ditzake: kontsumoaren jaitsiera, gainprodukzioa eta mahasti-azaleraren murrizketa.

Faktore horiek kolokan jartzen dute ardandegien eta ardogintza-ustiategien lehiakortasuna eta bideragarritasuna. Hortaz, beharrezkoa da jakitea zenbaterainokoa izanen den muga-zergen irismen erreala eta zer neurri aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak sektorea eta horrekin lotura duten landa-eremuak babesteko.

Nafarroako Gobernuak zer neurri darabil gogon muga-zergea horien inpaktua samurtzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

**11-25/POR-00266. Galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen aro berriari buruzkoa***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen aro berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nekazaritza Politika Erkidea (NPE), zeina Erromako Itunaren bidez sortu baitzen, funtsezkoa izan da Europar Batasunean elikadura-segurtasunari, landa-garapenari eta lurralde-kohesioari begira. Europako Batzordeak iragarri du sorta nazional bakarretan integratuko direla aurrekontu-programa

guztiak; hortaz, politika independente gisa desagertuko litzateke Nekazaritza Politika Erkidea. Aldaketa horrek ziurgabetasuna eragiten du Nafarroako ustiatzietan; izan ere, arriskuan jartzen da laguntza-esparru erkide bat egotea, eta estatuak aurrekontuen arloan hartutako erabakien mende jartzen ditu nekazaritza-errentak, halako moldez non lehiakortasuna gal bailiteke, bai eta lurralde-orekarako laguntza ere.

Nafarroako Gobernuak nola egingen dio aurre Nekazaritza Politika Erkidearen aro berriari?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

**11-25/POR-00267. Galdera, su-gorriari buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, su-gorriari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Kontuan izanda su-gorriak urteak daramatzala Nafarroan, baina 2025ean aurrekaririk gabeko hedapena izan duela, bereziki Ebro Ibarrean, zer udareondo- eta sagarondo-azalera ukitzen du su-gorriak eta zer neurri zehatz hartuko du departamentuak su-gorrina kontrolatzeko eta nekazariei eta enpresei konpentsazioa emateko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-25/POR-00268. Galdera, ospitaleetan klimatizazio egokia bermatzeko neurriei buruzkoa**

*MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, ospitaleetan klimatizazio egokia bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita uda honetan izan diren bero-boladak eta gure erkidegoko ospitaleetako zenbait gelatan ez dagoela klimatizazio egokirik, Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer neurri hartuko du ospitaleratu-ta dauden pertsonen erosotasuna bermatzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

---

## **11-25/POR-00269. Galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia abian jartzeari buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Félix Tabernari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu jakin dugu Nafarroako Gobernua LGTBI+fobiaren aurkako Nafarroako Behatokia diseinatzen hasi dela. Gobernua zer ari da egiten LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia abian jartzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 19an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-25/POR-00270. Galdera, Oronoz-Mugairin Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Oronoz-Mugairin Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuaren erabaki baten bidez baimendu da Oronoz-Mugairin (Baztan) Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzea. Zer balorazio egiten duzu erabaki hori dela-eta?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-25/POR-00271. Galdera, PAI programako 352 irakasle-lanpostuak baliozkotzen dituen Auzitegi Gorenaren epaitzari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, PAI programako 352 irakasle-lanpostuak baliozkotzen dituen Auzitegi Gorenaren epaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du Steilas sindikatuen aurkeztutako errekurtsioa, eta baliozkotu egin ditu PAI programako 352 irakasle-lanpostuak. Hezkuntza Departamentuak zer balorazio egiten du epaitza hori dela-eta?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-25/POR-00272. Galdera, irakasle bakoitzeko ikasle-ratioa mantentzeari buruzkoa

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, irakasle bakoitzeko ikasle-ratioa mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu jakin dugu –hala jasotzen da Hezkuntzako Adierazleei buruzko Estatu-txostenean– Nafarroa dela irakasle bakoitzeko ikasle-ratioetik txikiena duen autonomia-erkidegoa.

Gobernua zer ari da egiten ratio horiek mantentzeko edo hobetzen jarraitzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-25/POR-00273. Galdera, sexu-heziketako prestakuntza-pilotajeari buruzkoa

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, sexu-heziketako prestakuntza-pilotajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du,

Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkidetzaren Planaren helburua da, planean bertan jasotzen denez, “indarkeria sexista oro prebenitzen duen eskola-eredua eta gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak gaindituko dituen sendotzea”.

Hezkidetzaren ereduaren oinarrietako bat da heziketa afektibo-sexual positibo, osasungarri eta aniztasunarekiko errespetutsua, lagungarria harreman afektibo berdinzale eta indarkeriarik gabekoak sendotzeko, tratatu onean oinarrituta.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuak bultzatu duen sexu-heziketako prestakuntza-pilotajeak zer helburu du? Ikastetxeek eta familiek zer eginkizun izanen dute horretan?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## 11-25/POR-00274. Galdera, Valtierran 2025ean zehar izandako jaiotzengatiko laguntzak emateko deialdiari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, Valtierran 2025ean zehar izandako jaiotzengatiko laguntzak emateko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2025eko ekainaren 16an, Nafarroako Kontseiluak irizpen bat jaulki zuen, "Valtierran 2025ean zehar jaiotzeagatiko laguntzak emateko deialdia" dela-eta. Bertan ondorioztatzen denez, «zalan-tzazkoa da deialdi hori ordenamendu juridikoaren arabera izatea». Valtierrako alkateak komunikabideei gero egindako adierazpenetan, Manuel Resa jaunak deialdi horren baldintzak mantentzeko asmoa duela adierazi zuen. Era berean, "etorkinek egundoko kostua eragiten digute" edo "mena horiek, hemen ditugun jauntxo horiek eta hilean 5.000 euroko kostua eragiten digutenak" bezalako iritziak emateko aprobetxatu du.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Kontuan hartuta Nafarroako Kontseiluaren irizpena eta Valtierrako alkateak eginiko adierazpenak, zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak, bate-tik konpontze aldera deialdi horrek edo egin litekeen antzeko beste edozeinek ordenamendu juridikoarekiko duen ez-egokitzea, eta bestetik UPNko alkatearen adierazpen arrazistei erantzuteko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

## 11-23/POR-00211. Galdera, "Negozioen Errelebo Poltsa" programari buruzkoa

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Ainhoa Unzu Garate andreak "Negozioen Errelebo Poltsa" programari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera

2023ko azaroaren 7ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/POR-00059. Galdera, 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Ainhoa Unzu Garate andreak 2025-2028 aldirako Enplegu Plana prestatzeari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana.

Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/POR-00305. Galdera, landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Isabel Olave Ballarena andreak landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/POR-00364. Galdera, urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea María Olga Chueca Chueca andreak urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana.

Galdera 2024ko azaroaren 6ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00033. Galdera, mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Raquel Garbayo Berdonces andreak mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko itxaron-zerrendari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko urtarrila-

ren 28ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/POR-00055. Galdera, MOVES III Plana berriz luzatu beharrari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Mikel Asiain Torres jaunak MOVES III Plana berriz luzatu beharrari buruz egindako galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko

otsailaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/POR-00212. Galdera, Enplegurako eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialaren 2025eko maiatzaren 21eko bileran jorrotutako gaiei buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak Enplegurako eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialaren 2025eko maiatzaren 21eko bileran jorrotutako gaiei buruz egindako

ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00254. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Pedro José González Felipe jaunak 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruz egindako galdera

erretiratu izana. Galdera 2025eko ekainaren 24ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00255. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Marta Álvarez Alonso andreak egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibila-

ren Unitate Zentral Operatiboari emateari buruzkoa, 2025eko ekainaren 24ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00256. Galdera, Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Cristina López Mañero andreak Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bilerei buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko ekainaren 24ko

82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/POR-00258. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariet jarritako eragozpenei buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Belateko tunelak bikoizteko lanak esleitzeko prozesuaren irregulartasunen gainean mahaiko legelariet jarritako eragozpenei

buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera, 2025eko ekainaren 24ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/PES-00275. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruzkoa**

### *JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Zenbat kontratu egin ditu NICDO enpresak Adentro Construimos SL merkataritza-sozietatearekin?

Zein izan da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Eta zein izan da helburua?

Zer kontratazio-prozedura baliatu da horietako bakoitzean?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## 11-25/PES-00276. Galdera, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Building and Architecture Institute-k emanen duen titulu berekia dela-eta:

– Zer izen izanen du?

– Klaseak noiz hasiko direla aurreikusten da?

– Ikasleak erakartzeko eta marketineko zer ekintza ari dira egiten eta zer kostu ekonomiko dauka horietako bakoitzak?

– Non emanen dira klaseak?

– Zenbat ikasle edukitzea aurreikusten da?

Nork osatzen du irakasle-taldea?

– Zein da prestakuntza-programaren edukia (ikasgaiak, kredituak eta abar)?

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-25/PES-00277. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Cascanteko osasun-etxe berriko obren lizitazioa ebazteko prozesua?

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-25/PES-00278. Galdera, osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Azken asteotan, zenbait hedabidek eta SATSE sindikatuak jendaurrean salatu dute foru-erkidegoko ospitale nagusietan orokorra dela klimatizazio-sistema eraginkorren falta; bereziki, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan eta Bideko Ama Birjina Ospitalean.

Ospitalizazio-solairu, larrialdi-zerbitzu, kontsulta nahiz espazio komun askotan 30 °C-tik gorakoa izan da tenperatura, eta horrek eragin zuzena izan du paziente nahiz profesionalengan: sinkopeak, zorabioak, arnas-patologiak larriagotzea eta, are, kasu larri bat ere, osasun-arloko profesional batek haustura bat izan baitzuen bero-kolpe baten ondorioz.

2022ko urrian, proiektu bat lizitatu zen pabiloi guztiak klimatizatzeko eta energia-efizientzia hobetzeko "hotz-eraztun" baten bidez; halere, logelarik gehienek klimatizaziorik gabe jarraitzen dute gaur egun, eta ez da informaziorik eman ez proiektua-

ren betetze-egoerari buruz ez proiektua bukatzeko epe errealei buruz.

Egoera udaro errepikatzen da, eta zalan-tzazkoa da Osasun Departamentua gai ote den premiazko inbertsioak lehenesteko, ospitaleetan baldintza seguru eta duinak bermatze aldera.

Hori dela-eta, idatziz erantzuteko honako galdera hauek egiten dizkiot Nafarroako Gobernuari:

1. Zer txosten tekniko eta tenperatura-erregistro dauka Nafarroako Gobernuak ospitaleetan (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, Bideko Ama Birjina, Lizarra eta Tuterako ospitaleetan) 2025ean daukaten egoera termikoari buruz?

2. Berehalako zer neurri ezarri ditu Osasun Departamentuak instalazio horietan (klimatizagailu eramangarriak erabiltzea, eremu aireztatuak gaitzea, espazio kritikoen erabilera mugatzea, pazienteak birbanatzea...)?

3. Ofizialki dokumentatu al da gehiegizko tenperaturari zuzenean egozten ahal zaion gorabehera klinikorik edo laneko gorabeherarik (zorabioak, erorketak, larrialdi medikoak, jarduerak bertan behera uztea...)?

4. Zertan da klimatizazio integralerako 2022ko urrian lizitatutako kontratua? Zer egunetan esleitu zen, zer enpresa edo aldi baterako enpresa-elkar-terri, zer prozedurarekin eta zein da betetze-maila 2025eko ekainean?

5. Gobernuak eman al dezake kronograma oso eta loteslerik, gabezia hori duen Nafarroako ospitale bakoitzerako amaiera-datarekin?

6. Zer aurrekontu-partida berezi daude jasota 2025erako Nafarroako Aurrekontuetan horretarako, eta zer inbertsio aurreikusten da 2026rako?

7. Gobernuak aurreikusita al dauka bere gastu-lehentasunen gaineko politika berrikustea eta al bait lasterren ezartzea behin-behineko konponbideak, behin betiko klimatizazio-instalazioa osatu arte?

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: M<sup>a</sup> Teresa Nosti Izquierdo

## 11-25/PES-00279. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarrekiko protokoloei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarrekiko protokoloei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko senitartekoen elkartearen bidez jakin dugu gutxienez ere egoiliar batek behin eta berriro dituela hematoma eta zauriak. Lesio horiek haren senitartekoen detektatu dizkio- te, eta, diotenez, alde aurretik ez diete horien berri eman. Hori ikusita, honako galdera hau egiten dut, idatziz erantzuteko:

• Zer protokolo dago familiei halakoak jakinarazteko?

• Bete al da kasu honetan?

• Zer arrazoi egon daiteke halako egoera bat gertatzeko; hau da, hematoma eta zauriak behin eta berriro edukitzea?

• Zer baliabide eta/edo prozedura ari dira abian jartzen gisa horretako kasuei aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-25/PES-00280. Galdera, Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren gaineko salaketei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren gaineko salaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López, idatziz erantzun dezan:

- Zenbat salaketa, eta zer motatakoak, erregistratu dira 2024ko urtarrilaren 1etik aitzina Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarak nahasita dauden gertakariak direla-eta?

- Zenbat polizia-jarduketa jaso dira idatziz, eta zer motatakoak, 2024ko urtarrilaren 1etik aitzina Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarak nahasita dauden gertakariak direla-eta?

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-25/PES-00281. Galdera, LH Dualeko ebaluazioei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, LH Dualeko ebaluazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza

Departamentuari eskatzen dio idatzizko galdera hau erantzun diezaien.

Lanbide Heziketa Dualaren ezaugarri nagusia da enpresek ikasleen formazioan zuzenean parte hartzen dutela. Eta formazio horren ebaluazioari dagokionez, beharrezkoa da ikastetxeen eta enpresen arteko koordinazio ona izatea eta horretarako tresna egokiak egotea.

Nola uztartzen da ikasleek ikastetxean jasotzen duten formazioaren ebaluazioa enpresetan jasotzen duten formazioaren ebaluazioarekin?

Modulu guztietako formazioaren ebaluazioa enpresetara helarazten al da? Hori modulu guztietan bermatzen al da?

Zein da informazio hori enpresetara helarazteko modua? Zentro guztietan berdinean egiten al da?

Zentro guztietan ebaluazio irizpide horiek bateratuak daude?

Zein euskarritan egiten da ebaluazio hori? Txosten ereduak bateratuak daude?

Ba al dago ebaluazio hori helarazteko euskarri digitalik? Hezkuntza Departamentuak ba al du euskarri hori sortzeko asmorik?

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/PES-00282. Galdera, LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

Nafarroako Lanbide Heziketa zenbait ikastetxek salatu dute Lanbide Heziketa Dualerako murrizketek ezarri dituela Hezkuntza Departamentuak. Adierazi dute tutoretza-orduak gutxitu direla eta horrek lan-praktikak kudeatzeko zailtasunak ekarriko dituela. Tartean daude Donibane-San Juango Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua, Elizondokoa, eta

Iruñeko Ana María Sanz eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak.

Tutorea funtsezkoa da Lanbide Heziketa Dualen. 658/2023 Errege Dekretuak, Lanbide Heziketari buruzko Lege Organiko berria garatzen du, eta adierazten du Lanbide Heziketako ikastetxeko tutore dualarekin batera, enpresan beste tutore bat egon behar dela, koordinatzeko.

Zenbatekoa izan da jaitsiera hori? Zein izan dira arrazoiak?

Zenbat koordinazio-ordu izan ditu tutore bakoitzak orain arte Lantokiko Prestakuntza moduluak koordinatzeko?

Zenbat koordinazio-ordu izan ditu tutore bakoitzak hemendik aurrera Lanbide Heziketa Dualeko praktikak koordinatzeko?

Tutoreek enpresetara joaten eta enpresetatik etortzen emandako denbora nola zenbatzen da? Koordinazio-ordu moduan?

Sistema zaharra (Lantokiko Prestakuntza) eta berria (Lanbide Heziketa Duala) aldi berean dauden bitartean, nola bermatuko da plan zaharreko eta plan berriko ikasleak behar bezala artatu eta koordinatuko direla?

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/PES-00283. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zeri buruz ari zara, zehazki, PES-11-25/00209 galderaren erantzunean esaten duzunean pixkanaka egingen dela "2025-2026 ikasturtean zehar NUPen Osasun Zientzien eraikin berriaren egokitzapena, altzariak nahiz hezkuntza-jarduera"?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-25/PES-00284. Galdera, Goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Gobernuko zenbat goi-kargudunek aldatu dute edo eskatu dute aldatzea bere telefono mugikorra aurtengo maiatzaren 19tik hona?

Zer goi-kargudunek egin dute edo eskatu dute aldaketa?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **11-25/PES-00285. Galdera, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espedienteei eta ezarritako zehapenei buruzkoa**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espedienteei eta ezarritako zehapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

1. Nafarroako Gobernuaren Basozainak atalak egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

2. Foruzaingoaren Ingurumen Brigadak egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

3. Guardia Zibileko SEPRONAK egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

4. Zenbat zehapen-espediente abiarazi ziren salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzak egindako salaketa bakoitzaren ondorioz?

5. Abiarazitako zehapen-espediente horietako zenbatek eragin zuten zehapenak ezartzea, salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzeko?

6. Zer pertsona juridiko eta fisikori jarri zaizkie zehapenak eta zein izan da horien zenbatekoa, salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **11-25/PES-00286. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruzkoa**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Ba al dago justifikazio-txostenik, NICDOk Adentro Construimos SL merkataritza-sozietatearekin zenbait obra-enkargu Kontratuei buruzko Foru Legearen 80. artikuluan adierazitako prozedura sinplifikatuaren arabera kontratatu izanari buruzkorik?

Halakorik baldin badago, zerk justifikatzen ditu kontratazio horiek?

Nork egin zuen, baldin eta halakorik badago, justifikazio-txostena?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **11-25/PES-00287. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazientei buruzkoa**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazientei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak aurrekontu-partida bat dauka, "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" izeneko, xede daukana zenbait gasturi aurre egitea, hala nola pazienteak lehen kontsulta baterako edo ebakuntza baterako zentro pribatueta igoztearekin lotutakoei.

2023ko datuen arabera, igorritako bost pertsonatik bi oftalmologiako pazienteak ziren; eta hirutik bat, otorrinolaringologiakoa. Alabaina, sorturiko gastuaren portzentaje handiena kardiologiari dagokio (% 31,74), nahiz eta espezialitate horretara

igorritako pazienteek guztizko kopuruaren % 7,9 besterik egiten ez duten.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Zenbat pertsona bideratu dira 2024an Nafarroako Klinika Unibertsitariora "Itxarote-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehen kontsultarako, Kardiologiako espezialitatean? Zer irizpide medikorekin edo zer patologia-zantzurekin egin dira? Zer proba diagnostiko eskatu ziren, eta zer kostu izan du pertsona bakoitzeko?

Zenbat pertsona bideratu dira 2024an Nafarroako Klinika Unibertsitariora "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurretzeko kontsultetarako, Kardiologiako espezialitatean? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

Zenbat pertsona bideratu dira 2024an Nafarroako Klinika Unibertsitariora "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntza egiteko, Kardiologiako espezialitatean? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

## **11-25/PES-00288. Galdera, anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi hau bukatu aitzin aldatuko al du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria?

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-25/PES-000289. Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregulartasunei buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregulartasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jaso al du jakinarazpenik azken bi urteotan Tuterako Osasun Barrutiko oinarrizko osasun-laguntzako medikuen produktibitatearen esleipenaren eta/edo kontabilitatearen arloko irregulartasunak direla-eta? Zer neurri hartu dira horri dagokionez?

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-25/PES-00290. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritza-taldeari buruzkoa**

*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritza-taldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa gure komunitatean punta-puntako musika ikasketak eskaintzen dituen zentroa da. 1/2024 Legeak, ekainaren 7koak, goi mailako arte-irakaskuntzak arautzen ditu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa ezartzen du.

Horregatik, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak proiektu sendoa eta zuzendaritza egonkorra behar ditu.

Zein da gaur egun Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren zuzendaritza taldea? Noiztik dago? Zein egoeratan dago zuzendaritza hori? Noiz arte egon behar da?

Ba al dago elkarlanik Hezkuntza Departamentuaren eta Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritzaren artean? Ba al dago koordinazio-gunerik?

Ba al dago zuzendaritza berritzeko asmorik? Zein prozedura jarraituko da horretarako? Zein epe aurreikusten dira?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/PES-00291. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa gure komunitatean punta-puntako musika ikasketak eskaintzen dituen zentroa da. 1/2024 Legeak, ekainaren 7koak, goi mailako arte-irakaskuntzak arautzen ditu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa ezartzen du.

Horregatik, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak proiektu sendoa eta zuzendaritza egonkorra behar ditu.

Zein da gaur egun Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileen lan egoera? Zenbat dira? Zenbat langile finko eta zenbat behin-behineko daude?

Zein da gaur egun Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren plantilla organikoa? Zenbat bakante daude?

Zenbat langile egonkortu dira azken egonkorte prozesuetan? Zer asmo dago hemendik aurrera langileria egonkortzen jarraitzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/PES-00292. Galdera, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruzkoa

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendiak egindako galdera, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko ekainaren 3an, Arakilgo Udalak, Satrustegiko Kontzejuren izenean, eskaera bat aurkeztu

zion Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiari, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekua egokitzeko, zerbitzua berreskuratu ahal izateko eta, hartara, errepideko garraio publiko erregularra eskura egotea bermatzeko. Eskaera hori bizilagunen behar erreal batean oinarritzen da (batez ere, adinekoena eta gazteena), gaur egun ez baitute zuzeneko konexio iragarririk oinarritzeko zerbitzuekin eta hurbileko hiriguneekin.

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusiaren 2024ko urriaren 7ko 242/2024 Ebazpenaren bidez, ukatu egin zen toki-entitatearen eskaera, irizpide teknikoetan oinarrituta (ustezko eskari baxua, ibilbidea aldatu beharra eta alternatibak egotea hurbil).

Horregatik guztiagatik, honako galdera hau egiten dut, idatziz erantzuna izan dadin:

Nafarroako Gobernuak zer konponbide edo ekimen eskainiko du Satrustegiko Kontzejuko bizilagunek garraio publikoaren geraleku bat izan dezaten, bakar bat bederen, euren herrian?

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-25/PES-00293. Galdera, Arrotxapeko Osasun Etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Arrotxapeko osasun etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den ekainaren 19an, elkarretaratzea egin zen Arrotxapeko Osasun Etxearen ondoan, erabilitzaileek bertan hitzordua lortzeko dituzten arazoak eta zailtasunak salatuzko. Izan ere, osasun-etxe horrek artatutako biztanleek itxaron-ilarak egin behar izaten dituzte kalean goizean goizetik. Beste kexetako bat da mediku-kontsultak atzerapenez egiten direla, zenbait eguneko eta are zenbait asteko atzerapenez egin ere.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek idatziz erantzuteko galdera hauek egiten ditut: zer neurri hartu du edo hartuko du Osasun Departamentuak hitzordua lortzeko zailtasunak zuzentzeko eta atzerapen horiek epe optimoetara murriztea bermatzeko (48 edo 72 ordu gehienez ere)? Zer epetan hartuko ditu neurriok?

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-25/PES-00294. Galdera, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ekainaren 28an, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udalen prentsa-ohar bat argitaratu zen, Lesakako osasun etxeak bizi duen egoera larriaz ohartarazteko. Izan ere, Lesakako osasun

etxearen mende daude Bortzirietako bost udalerriak. Heldu den uztailaren 21etik aitzina, baldin eta dauden lanpostu hutsak betetzen ez badira, familia-medikuen kopurua drastikoki murriztuko da, halako moduan non eskualdeko biztanle guztiak artatzeko gaur egun sei mediku egotetik bi baino ez egotera pasatuko baita. Gaur egun, sei familia-medikuk eta pediatra batek osatzen dute goizeko oinarrizko osasun-arretako taldea. Hala ere, zenbait plaza ez direnez bete, egoera kritikoa sortu da. Berako bi mediku-lanpostuetako bat titularrik gabe dago 2024ko otsailetik, eta bestea egoera berean egonen da 2025eko uztailetik aurrera. Gainera, Arantza eta Igantzi zerbitzu ematen duen medikua bajaran dago apirilaren amaiera aldetik, eta ez da hura ordezteko modurik izan.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Osasun Departamentuak zer neurri ezarri du edo ezarriko du Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalen eskasia zuzentzeko, eta nola antolatuko du lana atentzio optimoa eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen eskubideak bermatzeko? Zer epetan aurreikusten du lortuko dela konponbidea?

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-25/PES-00295. Galdera, LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Orain dela gutxi jakin dugu Lanbide Heziketa-ko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murriztu direla (4tik 1era) 25/26 ikasturterako. Hori delata, honako hau galdetzen dugu:

Zer txosten daude erabaki horren oinarrian?

Zer datu objektibo erabili ditu Departamentuak tutoretza-ordu horiek edukitzea beharrezkoa ez dela erabakitzeko?

Iruñean, 2025eko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-25/PES-00296. Galdera, Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan da Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektua? Noizko aurreikusten da obrak hastea eta obrek zer iraupen izanen dutela aurreikusten du Departamentuak?

Iruñean, 2025eko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-25/PES-00297. Galdera, Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik kendu dira zenbait espezialitate Nafarroako itxaron-zerrendatik 2025eko ekainean?

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-25/PES-00298. Galdera, Nafarroako bide publikoak eta ibilbide berdeak arautzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako bide publikoak eta ibilbide berdeak arautzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroak eskumena du ibilbide osoa foru komunitatearen lurraldean duten bideen arloan. Eskumen hori Nafarroako Foru Erauzte Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49. artikulutik dator, eta izaera historikoa du. Izan ere, aurrekariak badaude, gutxienez ere XVII. eta XVIII. mendeetara arte iristen direnak, Nafarroako foru erakundeek bideen arloan arauketa eta kudeaketa berekia egitearenak.

Nafarroan badira bideen arloa arautzen duten manuak, baina nabarmena da oso sakabanatuta daudela. Abilbideei buruzko Foru Legea eta Kirol Zidorrei buruzko Foru Dekretuaz gain, Nafarroan ez dago arlo horren arauketa berekirik, foru eskumenen norainokoa den bezalakoa izanda ere.

Aldiz, beste autonomia-erkidego batzuek onetsi egin dituzte gai horri buruzko lege autonomikoak, hala nola Errioxak (Errioxako ibilbide berdeen

sarea arautzen duen martxoaren 26ko 5/2003 Legea); Murziako Eskualdeak (Murziako Eskualdeko ibilbide seinaleztatuei buruzko martxoaren 1eko 2/2019 Legea); Extremadurak, zeinak landa-bideen arauketa bat baitauka Extremadurako Nekazaritzari buruzko martxoaren 24ko 6/2015 Legean; eta Gaztela-Mantxak, zeinak errepideak eta bideak arautzeko lege bat baitauka (Gaztela-Mantxako Errepideei eta Bideei buruzko abenduaren 28ko 9/1990 Legea). Kataluniak, bere aldetik, badauka natur ingurunera motordun ibilgailuz sarzteari buruzko lege bat (Natur ingurunerako sarrera motorduna arautzen duen uztailaren 27ko 9/1995 Legea).

Hala, bada, Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2022ko irailaren 6an egindako bilkuran, aho batez onetsi zuen 10-22/MOC-00056 mozioa, hiru erabaki-puntu zituena:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzar honetan Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aipatu legea onesten ez den bitartean Plazaolaren bide berdea mantentzeko hitzarmen arautzaile bat adostu dezan ibilbidean dauden toki entitateekin, edo hala ez bada, Plazaola Turismo Partzuergoarekin berarekin, non zehaztuko baitira administrazio publiko bakoitzaren eta entitate turistikoaren betebeharrak eta eskubideak .

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako bide publikoen eta ibilbide berdeen sare bat sor dezan”.

Halaber, 2023ko azaroaren 9an, dokumentu hau sinatzen duen foru parlamentari honek ahozko galdera bat egin zion Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariari Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer plangintza eta kronograma zerabilen gogoan mozio hori betetzeari begira.

Osoko Bilkura hartan, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak adierazi zuen gobernu honek legegintzaldi honetarako daukan agendan jasota dagoela Nafarroako natura-bideen eta ibilbide berdeen erregulazioaren auzia, onartu zuen Nafarroak une honetan ez daukala erregulazio komun bat, eta mahai gainean jarri zuen beharrezkoa dela Gobernuak horri buruzko foru lege bat bultzatzea.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuak zer egin du orain arte eta zer aurreikuspen darabil gogoan, Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat Nafarroako Parlamentuan aurkezteari dagokionez?

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du Plazaolaren bide berdea mantentzeko hitzarmen arautzaile bat adostearren bide horretan dauden toki entitateekin edo, bestela, Plazaola Turismo Partzuergoarekin berarekin, non zehaztuko baitira administrazio publiko bakoitzaren eta entitate turistikoaren betebeharrak eta eskubideak?

Nafarroako Gobernuak egin al du lanik, azterlanik, aurreikuspenik edo beste ezer Nafarroako bide publikoen eta ibilbide berdeen sare bat sortzeko?

Iruñean, 2025eko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## **11-25/PES-00299. Galdera, lurzoru urbanizazinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onesteko oinarri gisa harturiko txosten tekniko edo juridikoei buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, lurzoru urbanizazinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Aginduari buruzko galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zer txosten tekniko edo juridikotan oinarrituta eman da abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua, zeinaren bidez aldi baterako debekatzen baita lurzoru urbanizazinean ezein jarduera egitea?

Zer organo tekniko edo zuzendaritza nagusik parte hartu zuten agindu hori prestatzen, baliozkotzen eta sinatzen?

Agindua eman aitzin, egin al zitzaizen kontsulta Landa Garapeneko, Ingurumeneko edo Industriako departamentuei ?

Eta nekazaritza- edo ekonomia-sektoreetako ordezkari?i?

Ezarritako debekuaren inpaktu ekonomiko edo sozialaren ebaluaziorik egin al zen? Hala baldin

bada, hori igortzerik ba al dago? Egin ez baldin bazen, zergatik ez zen egin?

Zer irizpide objektibo erabili zen debekua lurralde osoan modu orokortuan aplikatzeko, eskualdeen, baldintza meteorologikoen edo jarduera-motaren arabera bereizi gabe?

Plan sektorialetan jasotzen al zen lege- edo arau-aurreikuspenik Barne Departamentuati ahalmena ematen zionik bere eskumen-esparrutik kanpoko jarduera ekonomikoak bertan behera uzteko?

Amparo López kontseilariak jaso al zuen lege-ohartarazpenik (barnetik nahiz kanpotik), 58/2025 Foru Agindua sinatu aitzin nahiz ondoren, neurriaren ilegaltasuna edo eskumen-gehiegikeria delata?

Noiz eta zer formatutan hartu zen foru agindua "malgutzeko" erabakia ? Nork eta zer txostenetan oinarrituta proposatu zen foru agindua malgutzeko?

Nafarroako Gobernuaren aurkako salaketarik edo ondare-errekamaziorik erregistratu al da foru agindu horren ondorioz?

Gobernuaren barruan nork proposatu zuen neurria? María Chivite lehendakaria jakinaren gainean jarri al zen? Neurria bermatu al zuen?

Zenbat ikuskapen egin ziren abuztuaren 5ean agindua betearazteko? Zehapenik ezarri al zen?

Ba al dago pertsona fisiko edo juridikoren batek aginduaren ondorioz galera frogagarririk eduki izanaren konstantziarik?

Zer alde dago INFONAREN edukiaren eta kontseilariak egindakoaren artean? Non esaten da INFONAK jarduera ekonomikoa eteten uzten duela?

Planteatu al da mekanismoaren bat jarduera eten izanak ukitutakoak ekonomikoki konpentsatzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-25/PES-00300. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Aginduari buruzko galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

58/2025 Foru Agindua sinatu aitzin, kontsultarik egin al zitzaion zure departamentuari edo departamentuko zuzendaritza nagusietakoren bati (Nekazaritza, Abeltzaintza, Ingurunea...)? Hala ez baldin bada, egokia ikusten duzu hartutako erabakia?

Landa Garapeneko Departamentuaren ustez, baldintza tekniko edo meteorologiko nahikorik ba al zegoen 2025eko abuztuaren 5ean nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduera erabat gerarazteko Nafarroako lurralde osoan?

Departamentuak ba al du egun horretan bilketa-, laborantza-, ereite- nahiz abeltzaintza-kanpainaren bat modu kritikoan eten izanaren konstantziarik? Zeintzuk izan ziren sektorerik kaltetuenak?

Departamentuak kuantifikatu al du abuztuaren 5eko etete orokorraren inpaktu ekonomikoa? Zer estimazio darabilzue?

Departamentuaren ustez, protokolo arautu eta berriazko bat ezarri behar al da nekazaritzako jarduerak kudeatzeko INFONA planeko 2. mailan edo goragoko maila batean?

Barne Departamentuak helarazi al du 222/2016 Foru Agindua aldatu beharra dagoela abuztuaren 5ean gertatu ziren erabaki deskoordinatuak errepika ez daitezela?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-25/PES-00301. Galdera, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzko galdera hauek aurkezten ditu, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak onartzen al du Nafarroako Ubidearen lehen fasearen handiagotzeak zazpi urte baino gehiagoko atzerapena pilatu izanak nabarmen garestitu dituela Aguas de Navarra, SArekin sinatutako emakida-kontratuaren finantza-berroreka eta obraren kostua?

2.- Nafarroako Gobernuak xeha al dezake 10. eranskinari dagokionez onartutako azken gainkostuaren zer parte zor zaion zuzenean obra bukatzeko aurreikusitako datatik (2018) data errealera bitarte (2025) doan denbora-desfasetik heldu den

materialen, erregaien, makineriaren nahiz garraioaren prezio-igoerari? Zer txosten tekniko, ekonomiko edo finantzariotan kuantifikatzen edo oinarritzen da ebaluazio hori?

3.- Gobernuak berrets al dezake ea Aguas de Navarra, SA emakidadunak desoreka finantzariorik eskatu, justifikatu edo alegatu duen obra egitean pilatu diren atzerapenen ondorioz? Hala baldin bada, onartutako konpentsazioen zer parte lotzen dira atzerapen horiekin?

4.- Gobernuak xeha al ditzake emakidadunari 2018tik 2025era bitarte baimendutako betetze-luzapen guztiak (datak, ukitutako tartekak eta alegatutako zioak barne), bereziki horietakoren bat hasierako adjudikazioari egotz ez dakizkiokeen arazoietan oinarritzen bada?

5.- Gobernuak berrets al dezake ea, pilotutako atzerapenik ezean, handiagotze-proiektua berroreka finantzariorik gabe edo kontratu-aldaketarik gabe eginen litzatekeen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako % 20ko marjinaz harago?

6.- Zer inpaktu ekonomiko izan du altzairuaren, erregaien eta garraioaren nazioarteko prezioen igoerak 2020tik 2023ra bitarte 10. eranskinari lotutako azpiegituren azken kostuan? Gobernuak onartzen al du aitortutako gainkostuaren parte bat arrazoi objektibo horri zor zaiola?

7.- Zergatik ez zen emakida-kontratua hutsaldu kreditatu zenean obraren atzerapena lau urte baino gehiagokoa zela? Aukera juridiko hori baloratu al zen txostenen batean?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-25/PES-00302. Galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Aire Bidezko Konektibitatearen Nafarroako Mahaiak maiatzaren 7an lehenbiziko bilera egin ondoren, Nafarroako lehendakari María Chivitek iragarri zuen Nafarroako Gobernuak 4 milioi euro inbertituko dituela lehenbiziko fase batean Iruñeko aireportuaren aire bidezko konektibitatea hobetzeko, uda honetan eginen den lizitazio publiko baten bidez, 2026an zerbitzu emateko, bi destino nazional eta nazioarteko bi destino berrirekin.

Lehenbiziko fase batean, Nafarroako Gobernuak gutxienez ere 4 milioi euro inbertituko lituzke lehenbiziko fase batean Iruñeko aireportuaren aire bidezko konektibitatea hobetzeko, bi destino nazional eta nazioarteko bi destino berrirekin. Helburua da, esparru nazionalean, Bartzelonako hegaldiak

berriz ezartzea eta aire-bide berri bat ezartzea Levantera edo Espainia hegoaldera. Nazioarteko destinoei dagokienez, Europarekiko bi konexio berri lortzeko lanean ari da Gobernuak; aukeren artean, Frantzia, Alemania edo Italia darabiltza gogoan. Halere, destino horiek zehazteko, egungo eskaria nahiz egon litekeena aztertzen ari dira.

Chivitek honako hau adierazi zuen: “azken destinoa izateaz gain, Nafarroa bere turismo-nahiz negozio-merkatuekin konektatuko dituen konexio nazional eta nazioarteko gisa funtzionatzen duten konexioak bilatzen ari gara”. Lehendakariaren esanetan, destinoak “beharrizan eta aukera enpresarial eta turistikoetara lotuta daude, bai eta talentua erakarri eta atxikitze beharri eta aukerei ere”.

1.- Zer egin da arlo horretan Aire Bidezko Konektibitatearen Nafarroako Mahaiak lehenbiziko bilera egin zuenetik?

2.- Zergatik ez da oraindik egin lehendakariak uda honetarako iragarri zuen gutxienez ere 4 milioi euroko lizitazio publikoa?

3.- Noiz argitaratuko da Iruñeko aireportua nazioarteko bi destinoekin eta nazioarteko bi destinoekin lotzea hobetzeko lizitazioa?

4.- Zer departamentuk argitaratuko du lizitazioa?

5.- Zer aurrekontu-partidaren kontura eginen da lizitazioa?

6.- Zeintzuk izanen dira nazioarteko bi destinoak?

7.- Egungo eskariari nahiz egon litekeenari buruzko zer datu-analisi ari da egiten nazioarteko destinoak erabakitzeko?

8.- Analisi horiek oinarri, zeintzuk izanen dira nazioarteko bi destinoak?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 12an.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-25/PES-00303. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2022an egin zuen txostenean jasotzen denez, Eliza Katolikoak gutxienez ere 2.952 ondasun immatrikulatu ditu Nafarroan. Ondasun horien artean ondare-balio handiko dozenaka ondasun daude (besteak beste, Iruñeko eta Tuterako katedralak, ezin konta ahala eliza eta hainbat jauregi handi), zeinen garrantzi historiko eta arkitektonikoa elizaren beraren esparru juridikoaz haragokoa baita.

Kordobako meskitan orain dela gutxi gertatu den sutean ikusi ahal izan da meskitaren kudeatzaileen jokabide zabarrak arriskuan jarri duela gure herrirako garrantzi handi-handikoa den ondasun hori. Gisa horretako ondasunek, gure gizartearentzat hain balio handia eta garrantzi historiko hain handia baitute, kudeaketa publikoak izan behar dute bere babes, kontserbazio eta zabalkunderako bermerik hoberena.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua eta Nafarroako Udala

eta Kontzejuen Federazioa lanean ari dira Eliza Katolikoak ilegalki immatrikulatutako 300 bat herri-ondasunen titulartasuna berreskuratzeko, eta Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak gisa horretako ondarea katastrofe natural eta antropikoetatik babesteko egin beharrek jarraitu behar dituzte Nafarroako Ondare Historikoa Babesteko Planean, baina hori guztia ez da politikoki aski.

Horiek horrela, hauexek jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Eliza Katolikoak immatrikulatutako gutxienez ere 2.952 ondasun horietako zenbaterik gutxienez ondare-balio handia?

2. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako 300 herri-ondasunen artean (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ikertzen ari den horien artean) ondare-balio handiko ondasunik ote dagoen?

3. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondare-balio handiko zer ondasunek daukaten bisita pribatizatua gurtzarako ordutegitik kanpo, sarreraren bat kobratuta?

4. Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondare-balio handiko ondasunak, sarreraren bat kobratuta gurtzarako ordutegitik kanpo bisita pribatizatua daukatenak, zer zerga-araubide edo -arautiri daude lotuta?

5. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondare-balio handiko ondasunen batek, azken 25 urteotan kontserbazio- nahiz zaharberritze-lanen bat egiteko finantzaketa publikoa jaso duenak, bisita pribatizatua ote duen gurtzarako ordutegitik kanpo, sarreraren bat kobratuta?

6. Nafarroako Gobernuak pentsatu al du Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondare-balio handiko ondasunen kudeaketa publikizatzea?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-25/PES-00304. Galdera, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau galdetzen dut Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioen edukari, oinarri eta emaitzei dagokienez:

1. Nafarroako Gobernuak zer departamentu, unitate tekniko edo organo arduratu da Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioak idazteaz?

Halaber, zer irizpide tekniko, juridiko edo politiko baliatu zen alegazio horiek prestatzean?

2. Nafarroako Gobernuak zer jarrera aldeztu du Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aitzinean Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarria murrizteari eta haren emakida-zuzkidura jaisteari dagokienez?

Nafarroako Gobernuak kontraproposamen edo erreserba espliziturik planteatu al du?

3. Alegazioetan zergatik ez da jaso Nafarroako Ubideari jada konektatuta dauden ureztalur tradizionalen dagokien bolumena (Lodosakoa, Cárcarreakoa eta beste)?

Gobernuaren ustez, bolumen horrek emakida sendotuaren parte izan behar al du?

4. Nafarroako Gobernuak zer jarrera izan du zehazki Esako urtegiaren handiagotzeari dagokienez eta Nafarroari urtegi horretan proportzioan legokiokeen ur-erreseerbari dagokienez?

Erreserba hori formalki eskatu al zaio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari?

5. Plan Hidrologikoari egindako alegazioetan zergatik ez da ez jaso ez defendatu Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearen Eremu Osagarriari buruzko plana garatzea, abenduaren 23ko 81/2020 Foru Dekretuan onetsi zenaren arabera?

Gobernuak aktibatuko al du tresna hori prozesuaren hurrengo faseetan?

6. Nafarroako Gobernuak aurkeztutako zer alegazio errefusatu ditu jada Ebroko Konfederazio Hidrografikoak?

Gobernuak zer neurri edo ekimen abiaraziko du errefus horren ondoren, bereziki foru erkidegoaren interesen defentsan?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-25/PES-00305. Galdera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko nor –zehazki, nekazari-tzako edo landa garapeneko zer ordezkari, zuzendari nagusi edo kontseilari– joan zen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak 2025eko uztailaren 23an Errioxan egindako bilerara, zeinean Errioxako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak ere egon baitziren, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuari buruzko gaiak jorrazteko?

Bilerara joan ez baziren, zergatik ez ziren joan?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-25/PES-00306. Galdera, Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik erabaki zuen estatuko TRAGSA enpresari agintzea Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egitea, lizitazio publiko arrunt baten bidez egin dez?

Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako enpresen gardentasuna, konkurrentzia eta gastua aurrezteko irizpideak direla-eta erabaki horrek izan ditzakeen inplikazioei dagokienez?

Zer beherapen ekarri du tarifekiko kontratazio horrek egin behar zen jatorrizko proiektuarekin alderatuta?

Zeintzuk dira darabiltzazuen epeak eta atzerapenak?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-25/PES-00307. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gobernua ziur al dago Martzillako Behaketa- eta Harrera-Zentroan kaleratzeak egon zirela ekainean izandako gertakarien ondorioz?

Hala baldin bada, kaleratuek zertan ziharduten (kudeatzailea, hezitzaileak, psikologoak, garbitzaileak, eta abar) eta zeintzuk izan dira kalera- tzeen arrazoiak?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-25/PES-00308. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidetik gabeko atzerritar adingabeei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidetik gabeko atzerritar adingabeei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Bidaidetik gabeko zenbat adingabe atzerritar zegoen Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025eko ekainaren 13an?

– Bidaidetik gabeko zenbat adingabe atzerritar dago behaketa- eta harrera-zentro horretan galdera hau egiten den egunean?

– Bi data horien artean:

• Zenbat adingabe bideratu dira Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik beste zentro edo baliabide batzuetara?

• Noiz egin dira bideratzeak?

• Zenbat adingabe bideratu dira aldi bakoitzean?

• Nora bideratu ziren?

• Zer irizpide baliatu da bideratu beharreko adingabeak hautatzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-25/PES-00309. Galdera, Artikako behaketa- eta harrera-zentrotiei buruzkoa

### CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Artikako behaketa- eta harrera-zentrotiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zenbat behaketa- eta harrera-zentro dago Artikan?

– Noiz ireki ziren?

– Zenbat plaza dauzkate eta zenbat adingabe dago gaur zentro horietako bakoitzean?

– Zenbat heldu dira Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik?

– Zer jazo da abuztuan suhiltzaileek eta/edo segurtasun-indar eta -kidegoek esku hartu behar izateko? Zer kalte sortu dituzte?

– Egon al da salaketarik? Zer-nolakoak?

– Zer enpresa/entitatek kudeatzen ditu horiek eta zer langile-motarekin kudeatzen dituzte?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-25/PES-00310. Galdera, Europako funtsei buruzkoa (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk)

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Europako funtsei buruzkoa (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Europako funtsen (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programen) zer zenbateko zehatz jaso du Nafarroako Gobernuak 2021etik hona, baso-kudeaketa jasagarriaren, ekosistemak lehenera-

tzearen, baso-bioekonomiaren eta suteen aurkako borrokaren arloko jarduketak egiteko?

2. Funts horietako zer parte baliatu da egiaz eta ordaindu da gaur arte? Zehaztu aurrekontuan jasotakoaren zer ehuneko bete den, eta ez soilik aitortutako betebeharrak.

3. Nafarroako Gobernuak baieztatu al dezake ea, Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin gertatzen den moduan, konprometitutako Europako funtsen % 90 baino gehiago dagoen bete gabe sute-kanpaina abiatu denean, noiz eta beharrezkoagoak direnean?

4. Zerk justifikatzen du Europako funtsek betetzean izandako atzerapen edo eraginkortasunik ez hori? Izan ere, suteak ekiditeko, baso-kudeaketa indartzeko eta landa-ingurunean populazioa finkatzeko baliatu beharko lirateke.

5. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Gobernu zentralari erreklamatzeko edo exijitzeko betetze-maila erreala handiagoa izan dadin, ala etsipenez onartuko du dirua ministerioaren burokratian blokeatuta geratzea Nafarroak baso-suteak eta landa-despopulazioa pairatzen dituen bitartean?

6. Nafarroako Gobernuak bidal al dezake jasotako Europako funtsetako baso-partiden xehakapena, Nafarroan 2021etik jasotako zenbatekoak, konprometitutakoak, aitortuak eta egiaz ordaindutakoak berezita?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-25/PES-00311. Galdera, Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Barneko, Funtzio Publiko-ko eta Justiziako Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dizkio Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Baso-suteen kasuan esku hartzea da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak egiten duen jarduerarik garrantzitsuenetarikoa bat, hala zerbitzu-kopuruarengatik nola kudeatzen den langile- eta material-kopuruarengatik.

Nafarroako klima oso klima markatua da; hori dela-eta, udan nahiz neguan izaten ditugu baso-suteak (azken horiek Kantauri aldean eta Pirinio aldean gertatu ohi dira).

Suteak itzaltzeko esku-hartzeek gain, neguan larre-sorkuntzarako egin beharreko erreketetan parte hartzen du Suhiltzaileen Zerbitzuak, eta urte osoan zehar egiten ditu prebentzioz egin beharreko erreketak.

Baso- nahiz nekazaritza-landare-diaren sutea emergentzia bihurtu da azken urteotan, ingurumenari ez ezik biztanleriari ere eragiten diona. Klimaldaketa dela-eta, baso-suteengatik kanpainak udako hilabete tradizionalatik harago zabaltzen ari dira, eta suteak gero eta muturrekoagoak izaten ari dira, su-itzaltze zerbitzuen ahalmena bere mugaraino eramanez.

Horren guztiaren ondorioz, baso-suteak prebenitzeko eta itzaltzeko esku-hartzeak gero eta espezi-

koagoak eta konplexuagoak dira; beraz, Suhiltzaile Zerbitzua espezializatu egin behar da, sortzen diren premia berriei eraginkortasunez erantzuteko.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta gartzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legean ezartzen denez, Foru Komunitateko Administrazioari dagokio baso-suteak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko behar diren neurriak planifikatu, koordinatu eta gauzatzea, eta Baso Administrazioarena da baso-suteak prebenitzeko eta suteak itzaltzeko lanetan parte hartzeko eskumena.

80ko hamarkadaren erdialdetik, baso-suteak itzaltzearen arloko eskumena Suteak Itzaltzeko eta Salbamenduko Zerbitzuarena da –orain Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua deitzen da–. Gaur egun, 35 urtetik gorako esperientzia dute horrelako larrialdietan.

Gaur egun, Suhiltzaile Zerbitzuak 12 suhiltzaile-parke iraunkor ditu, bai eta aldi baterako parke bat (Miluze) ere, udako kanpainan aktibatzen dena. Parke guztiek dituzte basoko ponpa-auto 1 edo 2, baso-suteek eragindako larrialdiei urte osoan aurre egiteko, eta langileek behar den prestakuntza dute.

Urte osoko baliabide iraunkorraz harago, parkeak udako eta neguko kanpainetarako indartzen dira, berariaz kanpaina horietarako kontratatuak diren langileekin. Udako kanpainarako, ekainetik irailera, 150 pertsona kontratatzen dira, Tuteran, Azkoien, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Lizarra, Cordovilla eta Miluzeko parkeen artean banatzen direnak. Neguko kanpainarako, urtarriletik apirilerara, 42 pertsona kontratatzen dira Cordovilla, Oronoz eta Aurizko parkeak indartzeko.

Helikopteroz garraiatutako brigaden profesionalizazioan eta espezializazioan urrats bat gehiago egiteko unea da, kaboekek eta suhiltzaileek osatutako unitate bihurtuta horiek, gizarteak eskatzen dituen premiei erantzuteko.

Gauzak horrela, 2022ko abenduan akordio bat sinatu zen LAB eta UGT sindikatuekin, zeinean ezartzen baitzen:

«Nafarroako Gobernuak, arriskuak murriztera eta larrialdiak, hondamendiak eta kalamitate publikoak prebenitzera bideratutako jarduketak sustatzeko konpromiso irmoa baitu, konpromisoa hartzen du 2023ko urtarrilean diziplina anitzeko lantalde bat eratzeko, baso-talde tekniko baten

beharra, aukera, funtzionaltasuna eta dimentsionamendua aztertzeko, suteen analisi zorrotza bermatuko duena, bai eta efikazia- eta efizientzia-parametroetan esku hartzea ere, erregelamendu bidez garatuko den egituraren barruan».

Baso Taldea izanen litzateke basoen prebentzioaren eta itzaltzearen esparruan beharrezkoa den espezializazio hori emateaz arduratuko litzatekeena, Erreskate Teknikoko Taldeak eta Uretako Erreskate Taldeak beren lan-eremuetan egiten duten bezala.

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren barruan talde berri hori sortzeak, lehendik daudenekin batera, zerbitzuko langile operatiboek aukera emanen lieke arlo espezifikotako profesionalak garatzeko; eta, beraz, "suhiltzailearen karrera horizontala" esaten zaionaren aukera-sorta zabaltzen du.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuaren oinarritzako egitura ezartzen duen azaroaren 15eko 254/2023 Foru Dekretuaren 5. ataleko 23. artikuluko 2. apartatuan honako hau esaten da:

«Atalek talde operatiboak izaten ahalko dituzte, baita erreskate taldeak eta talde bereziak ere. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren foru aginduaren bidez sortuko dira eta hartan zehaztuko dira taldeen tamainari eta berezitasunei buruzko irizpideak.

Talde bakoitzean suhiltzaile agintari bat izanen da buru. Haren maila ezaugarrien arabera ezarriko da, eta aipatutako foru aginduan agertuko da».

Akordioa gehiengo sindikalarekin sinatu ondoren sortu zen lantaldea, eta bere lanak 2024ko maiatzean amaitu ziren, «Nafarroako Suhiltzaileen Baso Taldea arautzeko dokumentua» taxutu zuten. Plana taxutzeko prozesuan sindikatuen ekarpenak jaso ziren, eta zerbitzuko zuzendaritzaren eta gehiengo sindikalaren oniritzia jaso zuten.

Dokumentu hori Barne Zuzendaritza Nagusiari eman zitzaion. Dokumentu horretan jasotzen dira Baso Taldearen printzipio orokorrak, guardiak, kokapenak eta ordutegiak, langileen laneratze, mantentze eta kargutik kentzea, prestakuntza-programa, taldearen burutza, antolamendua eta eginkizunak, taldea osatzen duten pertsonen esku-bideak eta betebeharrak, diziplina-araubidea, abiarazpen-egutegia...

Hori dena ikusita, honako hau jakin nahi dugu:

1. Noiz sortu zen harako lantaldea, zeinak Suhiltzaile Zerbitzuaren egituraren barruko Basogintzako Talde Tekniko baten beharra, egokitasuna, funtzionaltasuna eta dimentsionamendua aztertu baitzituen?

2. Nortzuk izan ziren lantaldeko kideak eta noiz amaitu ziren haien lanak?

3. Kontseilariak ezagutzen al du "Nafarroako Suhiltzaileen Baso Taldea arautzen duen dokumentua" deiturikoaren edukia? Zer iritzi duzu Baso Taldea sortzeko proposamenari buruz?

4. Noiz eman zitzaizun dokumentu hori?

5. Zer egin du Departamentuak Suhiltzaileen Baso Taldea eraginkortasunez ezartzeko, behin dokumentu horren edukia ezagututa?

6. Kontseilariak zergatik ez du oraindik onetsi taldearen eraketarako foru agindua? Izan ere, azaroaren 15eko 254/2023 Foru Dekretuaren arabera, hori egin beharra zuen.

7. Ba al dago inolako arrazoi operatiborik taldea ez sortzeko?

8. Foru agindu hori noizko onesteko asmoa du kontseilariak? Legegintzaldi honetan zehar izanen al da?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-25/PES-00312. Galdera, Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSAko Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSAko Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua, Nafarroako Parlamentuarekin batera, hainbat ekimen ari da aurrera eramaten, gure erkidegoan etxebizitza ordainerraza eduki ahal izatea bermatzera bideratuak. Honako

hauek nabarmendu ditzakegu, beste askoren artean: lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzera bideratutako aurrekontu-zuzkidura areagotzea, etxebizitzak NASUVINSaren alokairu-poltsarako laga daitezzen sustatzeko zerga-pizgarriak abian jartzea, eta informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea Nafarroako toki desberdinetan, programa horren onurak ezagutarazteko.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuak zenbat etxebizitza erosi zituen 2023an, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatuta?

Nafarroako Gobernuak zenbat etxebizitza erosi zituen 2024an, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatuta?

Nafarroako Gobernuak zenbat etxebizitza erosi ditu 2025ean gaur arte, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatuta?

Zenbat etxebizitza dago sartuta gaur egun NASUVINSaren alokairu-poltsan?

2024ko egun berean baino zenbat etxebizitza gehiago dago sartuta gaur egun NASUVINSaren alokairu-poltsan?

2023ko egun berean baino zenbat etxebizitza gehiago dago sartuta gaur egun NASUVINSaren alokairu-poltsan?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

**11-25/PES-00313. Galdera, Pirinioetako Planari buruzkoa***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Pirinioetako Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein izan da (urteen, aurrekontu-kapituluen eta departamentuen arabera xehakaturik) Pirinioetako Planari 2019tik 2024ra bitarte esleitutako funts publikoen zenbateko osoa?

Zer entitate publikok, partzuergok, elkartek edo enpresa publikok kudeatu ditu, zuzenean nahiz zeharka, Pirinioetako Planeko funtsak 2019az geroztik? Zer eginkizun, aurrekontu edo kontraturekin?

Zenbat kontratu publiko edo dirulaguntza finantzatu dira Pirinioetako Planaren esparruan 2019az geroztik? Zeintzuk izan dira esleitze-prozedurak eta konkurrentzia-irizpideak?

Pirinioetako Plana onetsi zenetik, Nafarroako Gobernuak zer txosten (jarraipen-txosten, inpaktuebaluazioko txosten edo emaitza-neurketako txosten) egin du Pirinioetako Planari buruz?

Pirinioetako Mahaian zer funtzionamendu-arau, hautaketa-irizpide, agintaldi-iraupen eta kide-txandakatze daude indarrean gaur egun? Ba al dago haren bileren eta erabakien akta publikorik?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**11-25/PES-00314. Galdera, Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak noiz onetsiko du Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua, Nafarroako Parlamentuari igortzeko?

Iruñean, 2025eko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**PER20240011. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa**

**Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Mahaiak 2024ko martxoaren 25ean hartutako erabakiaren bidez onetsi zen deialdia, eta 2024ko apirilaren 23ko 83. NAOen eman zen argitara.

Zerbitzu Orokorretako buruak Nafarroako Parlamentuko gelazainak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak aurkeztu ditu, deialdi horren 11. oinarrian ezarritakoaren arabera taxutuak.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5.

artikuluaren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko gelazainak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialditik heldu direnak Zerrendak deialdiaren 11. oinarrian ezarritakoaren arabera taxutu dira eta erabaki honi atxiki zaizkio.

**2.** Zerrendak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara daitezen agintzea.

2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko aldi baterako kontrataziorako zerrendak  
Gelazainak**

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak, horietako bi euskarako B2 hizkuntza-eskakizundunak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

(2024ko apirilaren 23ko 83. NAO on argitaratutako deialdia)

Deialdiaren 11. oinarrian ezarritakoarekin bat, aldi baterako kontrataziorako honako zerrenda hauek osatzen dira:

**1) Lehiaketaldira iritsi eta lanposturik gabe gairitu duten pertsonen zerrenda, sarrerako hautapen-prozeduran lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:**

<b>Izen-abizenak</b>	<b>Gutziko puntuazioa</b>	<b>Hasierako posizioa</b>	<b>Deitzeko hurrenkera</b>
Alonso Sario, Diana	60,35	1	1
Cuartero Abad, María Isabel	58,8	2	2
Viamonte Menaza, Eva María	57,54	3	3
Maya Calvo, Diego	56,37	4	4
Martínez Castillo, María Cristina	54,24	5	5
Arenal López, Leticia Isabel	53,64	6	6
Lorenzo Pacheco, María Teresa	52,13	7	7
Martínez Asurmendi, Xabier	50,5	8	8
Andueza Sola, Amaia	49,16	9	9
Presencio Nagore, José Ignacio	48,8	10	10
Lecumberri Zaratiegui, Egipto	48,1	11	11
Espelosín Azpilicueta, David	47,91	12	12
Valenzuela Orta, José Fernando	47,1	13	13
Burguete Echavarri, Miguel Javier	47,08	14	14
Zabalza Tejada, María Cristina	46,8	15	15
Preciado del Pozo, Jesús M. <sup>a</sup>	46,77	16	16
Casarejos Soto, Marta	46,73	17	17
García Unanua, Ana M <sup>a</sup>	46,17	18	18
Belloso López, Unai	45,87	19	19
Eguinoa Buzunariz, Miren Nekane	45,5	20	20
Aponte Aranguren, Amaya	45,4	21	21
Cavia Naya, Gloria Alicia	45,1	22	22
Fraile Iturralde, Jorge	44,7	23	23
Herranz Aguirre, Miguel Ángel	44,37	24	24
Coronado González, Sonia	43,64	25	25
Ibáñez Chocarro, Ekaitz	43,52	26	26
Remírez Vizcaya, Inés	43,4	27	27

Ayape Galar, María Esther	41,77	28	28
Pérez Agúndez, Mikel	41,7	29	29
Mombo Marturet, Patricia Montserrat	40,46	30	30
Almendros Juárez, María José	39,33	31	31
Ruiz Pascual, Ana Cristina	38,96	32	32

**1.1) Euskarako zerrenda: lehiaketaldira iritsi eta lanposturik gabe gainditu duten pertsonen zerrenda, sarrerako hautapen-prozeduran lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua: ordenatua:**

Izen-abizenak	Guztizko puntuazioa	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
Martínez Asurmendi, Xabier	50	1	1
Fraile Iturralde, Jorge	44,2	2	2
Herranz Aguirre, Miguel Ángel	43,87	3	3
Coronado González, Sonia	43,14	4	4
Ibáñez Chocarro, Ekaitz	43,02	5	5
Pérez Agúndez, Mikel	41,2	6	6

**2) Oposizioaldiko probako bi ariketak gainditu bai baina lehiaketaldira iritsi ez diren izangaien zerrenda, lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:**

Ez dago izangairik zerrenda honetan.

**3) Oposizioaldiko probako bigarren ariketa soilik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:**

Izen-abizenak	Guztizko puntuazioa	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
Miguel de la Cámara, Marta	30,33	1	1
Echalecu Castaño, David	30,33	2	2
Irañeta Huarte, Miryam	29,40	3	3
Villanueva Jiménez, Miren Garaiñe	28,47	4	4
Fuentemilla Urío, Maitane	28,00	5	5
Vidaurreta de la Cruz, Miguel	26,37	6	6
Aguirre Ochoa, Vicente	26,37	7	7 (*)
Izquierdo Urdiain, Laura	25,20	8	8
Berrueta Martínez, María del Mar	24,03	9	9
López Arribas, José Ignacio	23,80	10	10
Iturria Marquina, Alberto	23,10	11	11 (*)
Subizar Oharriz, Elisa	22,63	12	12
Iturria Marquina, David	22,17	13	13 (*)
Marco Armengol, Yolanda	21,93	14	14
Rota Navarro, Natalia	21,93	15	15
Guruciaga Repáraz, María	21,93	16	16
Gaztanbide Atxutegi, Olga Laura	21,00	17	17
Horcada Iriarte, Iñigo	21,00	18	18
García Gila, María Remedios	20,53	19	19 (*)
Verger Romero, Francisco José	20,30	20	20

Viamonte Menaza, M. <sup>a</sup> Pilar	19,60	21	21
Irigoyen Iribarren, Ana Belén	19,37	22	22
Larumbe Galech, Víctor	19,13	23	23
Remiro Virto, Patricia	18,90	24	24
Isusi Lomas, Miren Edurne	18,20	25	25 (*)
Villanueva Jiménez, Edurne	18,20	26	26
Echauri Arana, José Javier	18,20	27	27
González Jiménez, Ana Isabel	18,20	28	28
De las Heras Rojo, Leticia	17,73	29	29

(\*) Lehentasuna dei egiterakoan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duenaren, 7. xedapen gehigarriari eta Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren 2016ko azaroaren 8ko Ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

**3.1) Euskarako zerrenda: oposizioaldiko probako bigarren ariketa soilik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:**

Izen-abizenak	Guztizko puntuazioa	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
Villanueva Jiménez, Miren Garaiñe	28,47	1	1
Fuentemilla Urío, Maitane	28,00	2	2
Guruciaga Repáraz, María	21,93	3	3
Gaztanbide Atxutegi, Olga Laura	21,00	4	4
Horcada Iriarte, Iñigo	21,00	5	5
Villanueva Jiménez, Edurne	18,20	6	6
Echauri Arana, José Javier	18,20	7	7
González Jiménez, Ana Isabel	18,20	8	8

**4) Oposizioaldiko probako lehen ariketa bakarrik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:**

Izen-abizenak	Guztizko puntuazioa	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
Yanguas Forcada, Alejandro	31,27	1	1
González Murillo, Juan Luis	28,70	2	2
Pérez Vallespín, Álvaro	27,77	3	3
Martínez Ballarín, Iván	27,30	4	4
Burguete Aguirre, Amaia	27,07	5	5
García Legarda, Emilio José	26,60	6	6
Leizagoyen Jericó, Maite	25,90	7	7
Martínez Zulet, Endika	25,67	8	8
Suñén Arandia, Ekaitz	25,43	9	9
Blanco Sisniega, Jonás	25,43	10	10
Murillo Zunzarren, Francisco Javier	24,97	11	11
Abaigar Millán, Jaione	24,73	12	12
Molina Rodríguez, Leticia	24,50	13	13
Urrutia Huarte, María Soledad	24,50	14	14
Sánchez Martínez, Marta	24,03	15	15
Rascón Urrizalqui, Aitor	23,80	16	16

San Miguel Luquin, Alex	23,80	17	17
Tamudo Marichalar, Amaya	23,57	18	18 (*)
Díez Martínez de Morentin, Mercedes	23,57	19	19
Vállez Pardo, Carlos	23,33	20	20
Ozcoidi Ancizu, Maite	23,10	21	21
Goldaracena Garbisu, Iñaki	23,10	22	22
Jáuregui Martínez de Morentín, Alberto	22,87	23	23
Cameirao Ojer, Diego	22,87	24	24
Del Hoyo Martínez de Lagran, Rubén	22,87	25	25
Ibáñez Villanueva, María Carmen	22,63	26	26
Delgado Rada, Raúl	22,40	27	27
Alcalde Unzu, Josu	21,93	28	28
Burguete Aguirre, Claudia	21,93	29	29
Agós Fernández, M.º Asunción	21,70	30	30
Echeverría Muruzábal, June	21,70	31	31
Fuentes Gutiérrez, Miren Alazne	21,70	32	32 (*)
Goikoetxea Esnaola, María José	21,70	33	33
Vidarte Usechi, Mikel	21,47	34	34
Arboniés Esandi, Ander	21,47	35	35 (*)
Napal Sanz, Enrique	21,23	36	36
Peña Martínez, María Asunción	21,23	37	37
Armendáriz Murillo, Begoña	21,23	38	38
Periano Idoate, Laura	21,00	39	39 (*)
Amoztegui Bautista, Rubén	21,00	40	40
Etxaide Aldatz, Ekhi	21,00	41	41
Rejas Esevenri, Fernando Hugo	20,77	42	42
Garcés Barrero, Tomás	20,77	43	43
Ortega Nieto, Lorena	20,53	44	44
Salinero Del Hoyo, Alberto	20,53	45	45 (*)
Chocarro Irujo, Adur	20,53	46	46
Urbiso Eraso, Natalia	20,30	47	47
Arrondo Larráyo, Carmen	20,30	48	48
Goñi Larraza, José Luis	20,30	49	49
De Miguel Valencia, María Cristina	20,07	50	50
Gabari Ardanaz, Félix Juan	20,07	51	51
Requejo Zabalza, María Sagrario	19,83	52	52
Vilches Ramírez, Beatriz	19,83	53	53
Azkune Etxabarri, Koldobika	19,83	54	54
Mendizábal Oribe, Aitor	19,60	55	55
Alves Pinto, Hortensia	19,60	56	56
Fernández Gajete, Pablo	19,60	57	57 (*)
Giménez Pérez, Berta	19,60	58	58
Etchevers, Martine	19,37	59	59
Jiménez Pérez, María	19,13	60	60
Muñoz Castellanos, Gregorio	19,13	61	61
Pardo Agundez, Gorka	19,13	62	62
Pascual Bayano, Abel	19,13	63	63
Sotés Díaz, Marcos	19,13	64	64
Estebariz Arteta, Óscar	19,13	65	65

Gabari Doray, Iñigo	19,13	66	66
Servián González, Eva María	18,90	67	67
Bautista López, María Pilar	18,90	68	68
Fernández Rodríguez Bobada, Ana M. <sup>a</sup>	18,90	69	69
Huarte Martiarena, Haitz	18,90	70	70
León López, M. <sup>a</sup> Cristina	18,67	71	71
Lizarraga Eraso, Carlos	18,43	72	72
Alfaro Ozcáriz, Ángel	18,43	73	73
Azanza Ilzarbe, María Carmen	18,43	74	74
Carmona González, Ricardo Patxi	18,43	75	75
Esteban Hernández, María Carmen	18,43	76	76
Etxarte Zambrano, Alberto	18,43	77	77
Fernández Sánchez, María Sira	18,20	78	78
Olite Azcona, Mauricio	17,97	79	79
Sagaseta López, Oihane	17,97	80	80
Cormenzana Lumbreras, Francisco Javier	17,97	81	81
Maeztu Arteaga, Ander	17,73	82	82
Pascal Sangari, Izaskun	17,73	83	83
Sola Alzueta, María Carmen	17,73	84	84
González Martínez, Darío	17,73	85	85 (*)
Iriarte Verdes, Cristina	17,50	86	86
Mancho Bacaicoa, Xabier	17,50	87	87
Orduna Donázar, Nieves	17,50	88	88

(\*) Lehentasuna dei egiterakoan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duenaren, 7. xedapen gehigarriari eta Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren 2016ko azaroaren 8ko Ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

#### 4.1) Euskarako zerrenda: oposizioaldiko probako lehen ariketa bakarrik gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua:

Izen-abizenak	Gutzizko puntuazioa	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
García Legarda, Emilio José	26,60	1	1
Martínez Zulet, Endika	25,67	2	2
Suñén Arandia, Ekaitz	25,43	3	3
Molina Rodríguez, Leticia	24,50	4	4
Rascón Urrizalqui, Aitor	23,80	5	5
Ozcoidi Ancizu, Maite	23,10	6	6
Goldaracena Garbisu, Iñaki	23,10	7	7
Del Hoyo Martínez de Lagrán, Rubén	22,87	8	8
Delgado Rada, Raúl	22,40	9	9
Echeverría Muruzábal, June	21,70	10	10
Armendáriz Murillo, Begoña	21,23	11	11
Etxaide Aldatz, Ekhi	21,00	12	12
Salinero Del Hoyo, Alberto	20,53	13	13 (*)
Chocarro Irujo, Adur	20,53	14	14
Arrondo Larráyo, Carmen	20,30	15	15

Azkune Etxabbarri, Koldobika	19,83	16	16
Mendizábal Oribe, Aitor	19,60	17	17
Fernández Gajete, Pablo	19,60	18	18 (*)
Huarte Martiarena, Haitz	18,90	19	19
Etxarte Zambrano, Alberto	18,43	20	20
Olite Azcona, Mauricio	17,97	21	21
Cormenzana Lumbreras, Francisco Javier	17,97	22	22
Maeztu Arteaga, Ander	17,73	23	23
Mancho Bacaicoa, Xabier	17,50	24	24

(\*) Lehetasuna dei egiterakoan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duenaren, 7. xedapen gehigarriari eta Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren 2016ko azaroaren 8ko Ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

OHARRA: 2025eko uztailaren 31n, zozketa egin zen jendaurreko ekitaldian, zerrendetako puntuazio-berdinketak ebazteko; ausazko bola bat atera zen, 9. zenbakia zuena, eta, beraz, «l» letrari zegokiona. Hori horrela, puntuazioan berdinketa gertatuz gero, zozketa horren emaitzaren araberkoa izanen da hautagaien ordena (lehen abizena, bigarren abizena eta izena); hau da, «l» letratik «Z» letrara, eta, hortik aurrera, «A» letratik hasi eta hurrengoetara.

## **11-25/REPA-00008. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 81.297,16 eurokoa izanen dela.

2. Agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/REPA-00008. Foru parlamentarien ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, foru parlamentarien ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzeari buruzkoa.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 66.846,78 eurokoa izanen dela.

2. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 59.417,68 eurokoa izanen dela.

3. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko

kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 50.154,02 eurokoa izanen dela.

4. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 44.563,40 eurokoa izanen dela.

5. Ezartzea ezen, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, foru parlamentarietako jasoko dituzten ordainsariak handitu egingen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

6. Agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

7. Erabaki hau helaraztea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-25/REPA-00008. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin ordainsariak eguneratzeari buruzkoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin. Honako hauek izanen dira modalitateak eta zenbatekoak:

a) 162,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

b) 191,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

2. Ezartzea ezen, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak handitu egingen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

4. Erabaki hau helaraztea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-25/REPA-00009. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langile funtzionario eta kontratudunen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langile funtzionario eta kontratudunen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Lan-maila bakoitzak duen hasierako soldata onestea. Honako hauek dira 2024rako zenbatekoak:

Lan-maila	Urteko zenbatekoa
A	30.395,26 euro
B	25.570,58 euro
C	21.211,82 euro
D	18.473,56 euro
E	16.249,66 euro

2. Ezartzea ezen, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileen ordainsariak handitu egingen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

4. Erabaki hau helaraztea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-25/REPA-00009. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko behin-behineko langileen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko behin-behineko langileen ordainsariak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, jarraian zerrendaturiko behin-behineko langileen ordainsari gordinak:

– Lehendakariaren kabineteburua: 60.874,10 euro.

– Lehendakariaren idazkaria: 45.791,90 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 37.052,68 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 37.052,68 euro.

2. Ezartzea ezen, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupean diharduten behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak handitu egingen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Agintzea argitara daitezela Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

4. Erabaki hau helaraztea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias